

Mañari.

Bederataluena.

Sorkunde Garbi-garbija'ren bederatzuena, larunbatez asita iluntzietan egiten da.

Juan-Etoñiak.

—Bilbo'ra juañ ziran Bizkafa'tar Pele ta Jule emakume begikuak.

—Igandez egon ziran emen Etxanobe'tar Nikodema (Urkuleta'ko Inkomedes ta «Gatzayeta»ko)Peli mofosko efimia.

—Gofotzategi'tar Matai «Altobizkar-Mendi» itxasontziko mofoe zintzua, lengo egun baten etxeratu zan. Mutil efimia ta dotoria agertu da.

—Igaroriko barikuan agurtu genduzan emen, Ortueta'tar Kepe andera ta Basaguren'dar Koldobike, Durango'ko emakume begikuak.

Erbija ugari.

Igandian be, eiztarijak, erbi-piluak eruan ebezan. Aurten, erbija ugari dabil ibili be ia. Ori dala-ta, bate-batzuk ja zelako tripakadak! Geuk asko ez baña...

Mutil-zintzuak.

Gabon-jayak ganian dirala-ta, emeko mutil gastetxu batzuk, orma-zulo gustijak bost begi ta erdigaz arakatuaz, mafazkilo (karakol) bila asi dira. Ta bilaturiko mafazkiloak Durango'ko merkatuan silduko eida-bez; bertan arturiko diruagaz Gabon-gaberako bixigu eder bana etxeratzeko ustez da mustez. Bai-ba, lau-zeri edo laumarai artuta be, zegozer jektok...?

Ia, zelako mutil zintzuak dagozan emen... Eztakienak balekik...

Ezkontsa.

Ixurtza'ko «Ortuzar» basetxeko Ortuosté'tar Felipe mutila, Durango'ko neskatila bategaz ezkontzen dala, diñue. Etxe-ikustia, lengo igandian egin ebela edo.

Konbidau.

Bilbao'tar Pauletzu, San Nikolas-jayak dirala-ta, Ixurtza'ra, «Ortuzar» basetxera, «konbidau» aste-beterako juañ-da.

MAÑARIKO

Eleiz - Janzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Eleizak jasateko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238
BILBAO

Barinaga.

Izparak.

Sabin'afen urteufena. Igazi dan igandian ainbat lagun bildu giñan gure elexan, amafetako mezatan, Sabin eta beste ildako abertzaliak gatik otoitz egiten. Datofen urtian, Jainkuak nai dabela, ospetasun aundijaguaz egiteko ustia dogu.

Egutegia.

Mile bederatziregun eta ogetamaseigafenekoa Jaungoiko-Zale'ren egutegi edefa, izkirimiri ta jakingafi sakonak daukazanak Batzoki-etxian sei txakufian salgei dago. Ia ba, arin ibili, geyago biar ba'dira be, laster ekafiko dira ta.

Lotsagarrija.

Aspalditxuan, goseak aulduta, ganora enndi barik emen inguruan mutil eldu bat ibili da. Gurasuak be ei ditu ta efiz Malabi'koa ei da. Eta olan ixanik ¿Zegaitik eze ete dau, daben baño jasotasun geyago? ¡Ofetarako eztago eskubiderik ori dabilen lez ibilteko eta ufenguan bere guraso edo bere efijak mutil ofekaz biar diran neufirik artu nai ezpadabe, biar dan lekuan artu eragingo yakue eta zetara oba dan, eurak kontuak atara dauzala.

TXEPETZ ORDE

Eleizhixuneturako Argizugizok kandelak

Eleizak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTABILI, zigufitasunaren ikufatzenak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezker, argizagi asko auzetuten da.

QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA
GAZTEIZ.-ARABA (VITORIA)

Mendata.

Elelekizunak.

Ia onen 8 an izango da Efi onetako ertxadonan Miren alabaen elelekizun berarizko bat goizian 7 ta erdietan Jaunartzea eta abesti samufakaz izango da eta afatsaldean 3 tan elelekizuna beraldi ta abar amaituko da. Jafaitu batez be emakumiak, zar eta gaste guzti guztiak.

Gexorik.

Denpora luzian gexorik aurkituten izan diran Goriño'tar Eusebiñe eta

bere alaba Goriño'tar Bitorñe ija osatu yakuz eta asko poztuten gara ofegaz eta zorionak.

Juan-etoñiak.

Itxasontzitik etofita emen aurkituten izan da Goriño'tar Kepa baita be Bilbotik etofita Goriño'tar Akelin baita itxasontzira Juan da Lamikiz'tar Imanol. Ondo ibili ta zorionak guztioi.

«Oiz azpi»ri.

Kaixio lagun zafa. Zeuk ardura andia daukazu gero. Kumarik egundu ete dodan-da, bai lagun zafa, neguan kumak eta gabonetan kereixak. Agur ufengorarte.

BEREKONDOKO ZUBIE

Lekaima

izateko ustiagaz ikastetxe edo kolejioratu jaku, Uskola'tar Marsek, neskatila zintzua. Bere guraso ta sendiak euren biotzeko pozari eutsi ezin da, negar egien, baña areik ziran malko zoriontsuak. Poztuten gara ta Jaunak bide oferi bizkor jafaituteko bestean sendatu zagizala dopatsogu. —Gaur ez dot izpafik geyago ta ufengo asterarte agur dagituet.

UDA BEÑI

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.)

Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak

Castilla, 31

VICORIA

Urkiola.

Ezkontza.

Ander Deuna'ren egunian Urkiola-ko Andoni Deuna'ren Eleizan ezkondu ziran gure adizkide eta lagun maitiak diran Enbeita'tar Balendin eta Ealo'tar Kalare, bata Enbeita'tar Kepa'ren seme eta Muxika'ko E. A. B. lendakarija izan dana biak abertzale zintzuak.

Ezkon lagunak Enbeita'tar Sabin eta Gofiño'tar Miren Andone; eurokaz estegura etofi ziranak Azarloza'tar Bakarne Zornotzar batzokiko emakume gaste eta liraña Enbeita'tar Miren eta Enbeita'tar Edurne ezkonduaren afebak.

Ezkon-bustafija artuta gero Elizako zeregiñak amaitu ondoren Lanadaxuela'tar Pilipa'ren ostatura eldu ziran an gertauta eguan estegua jakteko; ederto jan eta edan egin ondoren gure Enbeita anayok eurenak botaten asi ziran, baita zekulekuak bota be alkaferi, bateko bertso eta besteko soñu sekuleko alaitasunian eguna igaro zan. Zorijonak eta urte azkotarako izan daitezala.

Zorijonak bijotzez
Aizkide Balendin
Zure emastiagaz
Zoruntzua egin
Orain Zorijoneko
Gero zorijona
Auxe da biotzetik
Opa dautzudana.

ITURIOTZ

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizañak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekañe, 50

BILBAO

Lexona.

Ezkontzak.

Igazitako larunbatan ezkondu ziran Deun Jon Ugutz ertxadonan geure efikide maite diran Galbafiatu'tar Jasone eta Aranaga'tar Bingen, Erandio'ko abertzale zintzoa. Bardin ezkondu ziran egun beratan efiko Bilalabeitia'tar Jayone eta Bilbao'tar Olegari Gatika'ra.

Bustafi bitsubori neure zorion agufik beroena.

Sabin'en alde.

Igazitako igandean Maxima Deuna ertxadonan egin zan jaupa ixil bat eta gero «Liberame Domine» Perosi'rena, geure irkaskale ona zan Arana-Goiri'tar Sabin (G. B.) zanaren gogo alde.

Oso ozte andija eldu zan eta augarik neure zorionak Lamiako'ko Euzko Batzoki'ko artezkariari.

Ufengoan?

Bafiro bere ikusi dogu Erandio'ko euzkeltzale lenago aitaturikoa eta esan dausku laster asiko dala idazten eta auferatu dau, bere idatzijak atseginafijak izango dirala. Zertan esan bere ez poztu gaitula iragafi ofek, eta orain nai doguna da olan izan dafela. Baña ez da Erandio-Bekoa bakafik abertzalea eta kistafa badago

beste atal bat Erandio Goikoa bere, eta neuk dakidala alde onetan euzkel-idazle batzuk bere badagoz, gaur neuri irakatsi egiteko langoak ¿zergatik ez? «Ames», «Txori» «Bake» eta «Kepa». Uste dot onein artean ez dala izango bat bere EKIN irakufiten ez dabenik eta bein irakufi egiten badabe ¿zergatik idatzi ez al izanik?

«Ames» begikoa
Zar egin ba zara
Agindu egiozu
Gasteri lanera.
Kayolan dago «Txori»
Asu alden «Bake»
«Kepa» bere or dago
Lau egiten zale
Zubok lauron artean
Egingo zeunkie
Lan onurakofa eta
Ikusigafie.
Beraz asi zafetze
Ofelan egiten
Itxaropen, ori dot
Agur ufenarten.

EUZKELTZALE

Eunak eta soñeko egñiak Zea'ra'tar Erupin

Cenderia 15

Bilbao

Natxitu.

Jaupa bat.

Igaro dan astelenian il-ziran abertzalien aldez ospatu genduan jaupa bat. Notin asko eldu giñan bertara ta geure otoitzak zuzendu beste gustijen artian Ozamizitar Imanol zanaren gogo aldez efi onetako seme eta abertzale zintzo zan. G. B.

Jayotza.

Bilbao'tar Anselmo eta Natxiondo'tar Gregoria'k semetxo bafi bat ekafi dabe eta ugutzau ezan Gabirel Koldobika izena ezari dautso Miren Koldobike ete Gabirel neska mutil liraiñak izan zufan aita-ama bitxijak «balo-balo»nak batu ugeri ixan eizan, Tofe eta Simon be an ziran.

Ezkontza.

Efi onetako emakume bat ezkondu yaku Giloniz'tar Karmen Ea'ko Anakabe'tar Agustín'gaz. Zorijonak.

Deun Ander.

Ibafangelu guzurre auzo efijan aspatuten da, notin asko juañ eizan bertara iluntzian, baña astuta ibili ei zi-

(22)

ALDEZKETA - GAYAK

(APOLOGETIKA-GAYAK)

KISTAÑA NAZ

¿ZER DALA-TA?

NABARIZTARA'k atondua.

Jañakuna

Doibatzekuak ezitira: a) Zingiak, ugutzau ezitiranak.

g) Ziñausliak, ziñeskairan bat ukatuten dabenak.
k) Targolarijak, Doipurubaren mende eztagozanak.

y) Doibatzatubak, euren ogen aundijakafik Doipurubak Doibatzeetik uxatu edo jaurti biar ixan dauzanak.

j) Ziñuzliak, len ziñestun ixanda, gero ziñetsa ukatu ta utzi dabenak.

Doibatzaren soin atal ixateko, iru baldintzok betatu biar dira: ugutzau ixan, ziñeskintza osorik onartu, Doipurubaren mende iraun. Doibatzaren gogokide edo arimako ixateko, bariz, goi-eskaña biraña ta naikua da. Orezkero, eskardun gustijak, Jaungoikua eza-

gun eto mafe dabenak, ugutzau ixan,baño len be, Doibatzen gogokide dira.

OSTEZKITZAK. 1.º Doipuruba ez edo dala uts-eziña, Doipuru batzuk txarto bixi ta oben aundijak jauki dabezala-ta.

Er. Doipuruba, gixona danez, obendi edo pekatarija ixan lefeke, ta oretan uts-egin legike; ziñeskintza ta sori-gayak Doipuru danez irakatsi edo azaltzen dauzanian baño ezta utseziña; eta ontaz eztau eguno utsik egin.

2.º Gotzain batzuk ziñeskayetzaz be uts-egin dabela.

Er. Bai orixe, uts-eziñak ezitira ta; gotzain geyenak, orañño, Doipurubagaz batera dagozala, ziñeskai ta ofura gayetan elegikie uts-egin, Doibatza irakasia uts-eziña dalako.

3.º Ugutzta Doibatza-atia danezkero, ugutzauriko guzlijak dirala doibazkidiak.

Er. Ez orixe, ugutz-atez Doibatzeratu ixanañen, ziñeskairan bat jakinñez ta aukera osoz ukatu edo Doipurubaren menpetik alde-egin dabenak, Doibatzeetik urten egin dira-ta.

DOIBATZA TA LATERIJAK. Doibatza lateri (estadu) askotan zabaldua egonañen, buru-jabe ta azke da.

Doibatzak laterijakaz dauzan artu-emonak ziara azaldu euskuzan Arana Goiri argijak euzkotaroi:

«1.º Euzko-ekandu, lagi ta Jaurbide-egiñenak Kistar-uzkurtzaren agindubai egokiñu, agindubok euzkotara gixona danez biartuten dabelako, lateritar ixan baño len be; agindu oreik Erroma'ko Doibatza Orokar ta Beldukañak bakarik zeindu ta azaldu legikezala autortu; eta len afatu dan egokiñasuna bafuraztuteko (garantizetako), lateri-aginifedunak Doibatza-aginifedunai adijonez bayetza eskatuko dautse».

«2.º Doibatzak Euzko-Eri-baño bere goi egikixuna betetako, azkatasun oso osua ixango dau. Goi-egikixun ori buruz, lateri aginifedunak Doibatza aldeztu egingo dabe, beronen kaltezko gurtz-egiñen agiri ta zabalkunde gustijak gebendu, ta siñeskai-aurka edo sori-kaltez (moral-kaltez) agirijan ezer egiterik eragotzi».

«3.º Lateri-aginifedunak ezelango esku-arterik eztabe ixango gurtz-eikixunetan, uskurtz-irakaskintzan, eta Doibatzeke arduradun eta ogasun-banakarijak ixenteian: edo, Doibatzak beriak dauzan arazo a gauzetan».

«4.º Doibatza-gixonak be ezelango esku-arterik eztabe ixango lateriko aginifedunak; laterijarekiko bete-biafetzaz azke ixango dira. ostera. Doibatza-notin eta gauzak, bariz, aldeztu egingo dauz laterijak, indarrez be».

Uartu. Doibatza eta laterijen arteko artu-emonetzaz adimenkerijak, nirzerkerijak, gaiztakerijak, abertzalekerijak, bakoizkerijak, gixartekerijak eta baltsakerijak zabaldu dabezan aburu oker ta guzurañak ezelan be elefekez onartu.

(Ufenguan geyago)